



ARGIAko langileak Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin, abenduaren 19ko emanaldiaren ostean.

USURBILGO ARGIAren LAGUNAK TALDEA

1996tik ARGIAri eusteko ekinean



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

[Benetako gertakarietan oinarritua.] Ekonomikoki urte zailak direla eta lagun talde bat elkartu da mailegu bat eskatu eta ARGIA proiektua sustengatzeko. 1998. Usurbilgo ARGIAren Lagunak taldea. Gaur egun ere martxan da taldea, eta jarraitzen du ARGIA laguntzen. Baina zer ibilbide dago tarte horretan guztian?

Behin mailegua eskatuta, lehentasuna mailegu horri buelta ematea izan da. Modu ezberdinetako kanpainak jarri dira martxan Usurbilen, oraindik urteroko zita den Gabonen aurreko pailazoen emanaldia dela, Usurbilgo Sagardo Eguneke txosna dela, herri afariak direla, Aleman anaiek opari emandako ezti-poteen salmenta dela... Herri bat proiektu zehatz baten inguruan mobilizatuta. Modu batean ala bestean. Eta ez da kasualitatea Usurbilen, antzeko beste herri batzuekin alderatuta, harpidetza kopurua altuagoa izatea.

Pailazoak 1996tik

ARGIA proiektu bezala laguntzeko taldea 1998an sortu bazen ere, 1996tik hasiak

ziren pailazoen emanaldia eskaintzen. Lehen bi urteetan Urruñako eta Sohüta-ko ikastolentzako diru-bilketaren parte izan ziren, eta 1998an sortutako taldeak hartutako mailegua kontuan izanik, hiru-garren urtetik aurrera laguntza ekonomikoa horra bideratzea erabaki zen.

Mailegua jada ordainduta dago. Baina oraindik ere zenbait ekitaldi antolatzen jarraitzen dute Usurbilen ARGIAren alde, proiektuak garatzen eta eraldatzen jarraitzen baitu eta gaur ere bat egiten baitute bidearekin. ARGIA "euskaldun libre eta herri nortasunean jantziak izateko zein ingurumena ez hondatzeko kontzientzia lantzeko bitarteko eta euskaraz informatzeko astekari independente bezala" definitzen dute Usurbilgo lagunek.

ARGIA Egunak ere ospatu izan dira garai batean herrian, eta orain urtebete ekindako eraberritze prozesuaren barruan ARGIAko generazio berriak azken urteetan ospatu gabe zen festa egun hori berreskuratu nahi eta Usurbila begira jarri zuen lehen diana. Kasualitatean gehiago sinesten dut kasualitatean baino. ■

“ARGIA da Espainiako estatuko aldizkaririk onena. Arreba euskara ikasten hasi zenean irakurtzeko esan nion, niretzat euskaraz irakurtzeko motibo da”

Xabier Rico,
ARGIAkoa



Diagonal eta Directarekin Espainiako hauteskundeak elkarlanean

Epizentroa Katalunian du Directak, Madrilén Diagonalek eta Euskal Herrian ARGIAk. Hiru komunikabideok, Espainiako Estatuko hauteskunde orokorretako emaitzen analisien trukea egin dugu. Nork bere errealitateaz argitaratu duena katalanera, gaztelera eta euskarara itzuli eta beste hedabideetan argitaratu dugu.



Proposatu ARGIA Sarietarako hautagaiak:

- Bidali harpidetza@argia.eus-era alor hauetarako hautagaiak: ikus-entzunezkoak, irratia, internet, prentsa, komunikazio ekin-tza eta merezimenduzkoa.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00ean.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Euskalerrria Irratia:**
Asteartetan, 14:15ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiralean, 10:30ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Asteartetan, 18:00ean.